Aurreko paragrafoan aipatutako kalkulu-formulan denbora (T) zenbatzeko, hilabeteak hartuko dira aintzat amortizazio-sistema frantsesa bada, eta egutegi-egunak gainerako amortizazio-sistemetan. "D" atalerako, berriz, 1.200eko balioa hartuko da (T) hilabeteetan adierazten denean, eta 36.500 gainerako kasuetan.

**Likidazioaldia:** Interesak likidatu eta ordainduko dira, mugaeguneratutako .....**en arabera** "AMORTIZAZIOA" klausulan "ordainketa-egun" gisa adierazitako egunetan, dela interesak soilik biltzen dituzten kuotetarako (lehen aldi irregular bat ezarri bada eta/edo gabealdirik badago), dela hitzartutako kuota konstanteetarako, amortizazioa eta interesak biltzen dituztenak. Likidazio bakoitzean alderdi MAILEGU-HARTZAILEARI kontu-laburpen bat bidaliko zaio, eta hark laburpena erreklamatu egin beharko du jasotzen ez badu, haren esku dagoela eta harekin ados dagoela ulertuko delarik baldin eta 30 egutegi-eguneko epean likidazio bakoitzaren muga-egunaz geroztik erreklamatzeko ez badu.

Urtebetetik beherako epeetan sortutako interesak kalkulatzeko urteko interes-tasa eguneko interes-tasa bihurtu beharra dagoenean, urteak **365** egun dituela hartuko da kontuan, bisurteetan izan ezik, azken horietan **366** egun hartuko direlarik aintzat.

Amortizazioak ordaintzeko eta Interesen likidazioetako datak zehazteko, irizpide hauek erabiliko dira:

a) Hilabeteak datatik datara zenbatuko dira.

b) Adierazitako epearen muga-eguneko hilabeteen ez badago hasierakoaren pareko egunik, hilaren azken eguneari amaituko da epea.

Informazio gisa esan beharra dago, kontratu honetan hitzartutako baldintzak betez gero, interes-tasa efektiboa urtean ehuneko ..... izango dela, eta hori kalkulatzeko:

- Higiezin-kredituko kontratuak arautzen dituen martxoaren 15eko 5/2019 Legearen II. eranskinean ezarritakoa hartuko da aintzat.

Klausula honen hasieran aipatutako alderdi MAILEGU-HARTZAILEAK LABORAL KUTXAKO lan-bazkidea izateari uzten badio, mailegu horrek galdu egingo du, automatikoki, eragiketa honetarako alde aurretik aipatutako **lehentasunezko interes-tasa** aplikatzeko eskubidea. Hori gertatzen bada, urteko interes-tasa nominal berri bat aplikatuko da automatikoki, eta % ..... izango da.

Hori guztia alde batera utzi gabe LABORAL KUTXAK bere eskubideak balia ditzakeela " MUGAEGUNERATZEA AURRERATZEKO ARRAZOIAK " estipulazioan ezarritakoan oinarrituta.

Gainera, kontuan hartuta mailegu hau eman dela finka bat erosi edo birgaitzeko, poliza honen lehenengo klausulan deskribatu dena, finka horrek ..... alderdi MAILEGU-HARTZAILEAREN ohiko etxebizitza izateari uzten badio, mailegu honek galdu egingo du, eragiketa honetarako lehentasunezko interes-tasa hori aplikatzeko eskubidea. Kasu horretan, etxebizitza horrek ..... alderdi MAILEGU-HARTZAILEAREN ohiko etxebizitza izateari uzten dionez geroztik seigarren hilabetetik aurrera, urteko interes-tasa nominal berri bat aplikatuko da, eta % ..... izango da.

Bi zirkunstantzia horiek aldi berean gertatzen badira, hau da, klausula honen hasieran aipatutako alderdi MAILEGU-HARTZAILEAK LABORAL KUTXAKO lan-bazkidea izateari uzten badio, eta, horrez gain, erosi edo birgaitu beharreko

finkak, mailegu hau ematearen arrazoia izanik poliza honen lehen klausulan deskribatu denak, ..... alderdi MAILEGU-HARTZAILEAREN ohiko etxebizitza izateari uzten badio, urteko interes-tasa nominal berria % ..... izango da.

**N) LK BAZKIDEA OHIKO ETXEBIZITZA EROSTEA/BIRGAITZEA/AUTOSUSTATZEA MAILEGU OSAGARRIAREN INTERES-TASA FINKOA**

..... alderdi MAILEGU-HARTZAILEAK erakunde mailegu-emailean ematen ditu bere lan zerbitzuak eta haren lan-bazkidea da aldi berean, eta mailegu honen xedea, poliza honen lehenengo klausulan jasotakoa da.

Maileguaren erabilitako saldoek urteko ehuneko ..... interes-tasa nominal bat sortuko dute egunero LABORAL KUTXAREN alde, eta interes-tasa nominaletik abiatutako interesen zenbateko osoa lortzeko **(CxRxT)/D** formula erabiliko da, honako irizpide hauei jarraikiz betiere:

Aurreko paragrafoan aipatutako kalkulu-formulan denbora (T) zenbatzeko, hilabeteak hartuko dira aintzat amortizazio-sistema frantsesa bada, eta egutegi-egunak gainerako amortizazio-sistemetan. "D" atalerako, berriz, 1.200eko balioa hartuko da (T) hilabeteetan adierazten denean, eta 36.500 gainerako kasuetan.

**Likidazioaldia:** Interesak likidatu eta ordainduko dira, mugaeguneratutako .....**en arabera** "AMORTIZAZIOA" klausulan "ordainketa-egun" gisa adierazitako egunetan, dela interesak soilik biltzen dituzten kuotetarako (lehen aldi irregular bat ezarri bada eta/edo gabealdirik badago), dela hitzartutako kuota konstanteetarako, amortizazioa eta interesak biltzen dituztenak. Likidazio bakoitzean alderdi MAILEGU-HARTZAILEARI kontu-laburpen bat bidaliko zaio, eta hark laburpena erreklamatu egin beharko du jasotzen ez badu, haren esku dagoela eta harekin ados dagoela ulertuko delarik baldin eta 30 egutegi-eguneko epean likidazio bakoitzaren muga-egunaz geroztik erreklamatzeko ez badu.

Urtebetetik beherako epeetan sortutako interesak kalkulatzeko urteko interes-tasa eguneko interes-tasa bihurtu beharra dagoenean, urteak **365** egun dituela hartuko da kontuan, bisurteetan izan ezik, azken horietan **366** egun hartuko direlarik aintzat.

Amortizazioak ordaintzeko eta Interesen likidazioetako datak zehazteko, irizpide hauek erabiliko dira:

a) Hilabeteak datatik dataren zenbatuko dira.

b) Adierazitako epearen muga-eguneko hilabeteen ez badago hasierakoaren pareko egunik, hilaren azken egunean amaituko da epea.

Informazio gisa esan beharra dago, kontratu honetan hitzartutako baldintzak betez gero, interes-tasa efektiboa urtean ehuneko ..... izango dela, eta hori kalkulatzeko:

- Higiezin-kredituko kontratuak arautzen dituen martxoaren 15eko 5/2019 Legearen II. eranskinean ezarritakoa hartuko da aintzat.

Klausula honen hasieran aipatutako alderdi MAILEGU-HARTZAILEAK LABORAL KUTXAKO lan-bazkidea izateari uzten badio, mailegu horrek galdu egingo du, automatikoki, eragiketa honetarako alde aurretik aipatutako **interes-tasa** aplikatzeko eskubidea. Hori gertatzen bada, urteko interes-tasa nominal berri bat aplikatuko da automatikoki, eta % ..... izango da.

Hori guztia alde batera utzi gabe LABORAL KUTXAK bere eskubideak balia ditzakeela " MUGAEGUNERATZEA AURRERATZEKO ARRAZOIAK " estipulazioan ezarritakoa oinarrituta.

Gainera, kontuan hartuta mailegu hau eman dela finka bat erosi edo birgaitzeko, poliza honen lehenengo klausulan deskribatu dena, finka horrek ..... alderdi MAILEGU-HARTZAILEAREN ohiko etxebizitza izateari uzten badio, mailegu horrek galdu egingo du, eragiketa honetarako interes-tasa hori aplikatzeko eskubidea. Kasu horretan, etxebizitza horrek ..... alderdi MAILEGU-HARTZAILEAREN ohiko etxebizitza izateari uzten dionez geroztik seigarren hilabetetik aurrera, urteko interes-tasa nominal berri bat aplikatuko da, eta % ..... izango da.

Bi zirkunstantzia horiek aldi berean gertatzen badira, hau da, klausula honen hasieran aipatutako alderdi MAILEGU-HARTZAILEAK LABORAL KUTXAKO lan-bazkidea izateari uzten badio, eta, horrez gain, erosi edo birgaitu beharreko finkak, mailegu hau ematearen arrazoia izanik poliza honen lehen klausulan deskribatu denak, ..... alderdi MAILEGU-HARTZAILEAREN ohiko etxebizitza izateari uzten badio, urteko interes-tasa nominal berria % ..... izango da.

**O) LK BAZKIDEA OHIKO ETXEBIZITZA EROSI/BIRGAITU/AUTOSUSTATZEAZ BESTELAKO XEDEA INTERES-TASA FINKOA**

..... alderdi MAILEGU-HARTZAILEAK erakunde mailegu-ematean ematen ditu bere lan-zerbitzuak eta haren lan-bazkidea da aldi berean, eta mailegu honen xedea, poliza honen lehenengo klausulan jasotakoa da.

Maileguaren erabilitako saldoek urteko ehuneko ..... interes-tasa nomina bat sortuko dute egunero LABORAL KUTXAREN alde, eta interes-tasa nominaletik abiatutako interesen zenbateko osoa lortzeko **(CxRxt)/D** formula erabiliko da, honako irizpide hauei jarraikiz betiere:

Aurreko paragrafoan aipatutako kalkulu-formulan denbora (T) zenbatzeko, hilabeteak hartuko dira aintzat amortizazio-sistema frantsesa bada, eta egutegi-egunak gainerako amortizazio-sistemetan. "D" atalerako, berriz, 1.200eko balioa hartuko da (T) hilabeteetan adierazten denean, eta 36.500 gainerako kasuetan.

**Likidazioaldia:** Interesak likidatu eta ordainduko dira, mugaeguneratutako .....**en arabera** "AMORTIZAZIOA" klausulan "ordainketa-egun" gisa adierazitako egunetan, dela interesak soilik biltzen dituzten kuotetarako (lehen aldi irregular bat ezarri bada eta/edo gabealdirik badago), dela hitzartutako kuota konstanteetarako, amortizazioa eta interesak biltzen dituztenak. Likidazio bakoitzean alderdi MAILEGU-HARTZAILEARI kontu-laburpen bat bidaliko zaio, eta hark laburpena erreklamatu egin beharko du jasotzen ez badu, haren esku dagoela eta harekin ados dagoela ulertuko delarik baldin eta 30 egutegi-eguneko epean likidazio bakoitzaren muga-egunaz geroztik erreklamatzeko ez badu.

Urtebetetik beherako epeetan sortutako interesak kalkulatzeko urteko interes-tasa eguneko interes-tasa bihurtu beharra dagoenean, urteak **365** egun dituela hartuko da kontuan, bisurteetan izan ezik, azken horietan **366** egun hartuko direlarik aintzat.

Amortizazioak ordaintzeko eta Interesen likidazioetako datak zehazteko, irizpide hauek erabiliko dira:

a) Hilabeteak datatik datara zenbatuko dira.

b) Adierazitako epearen muga-eguneko hilabeteen ez badago hasierakoaren pareko egunik, hilaren azken egunean amaituko da epea.

Informazio gisa esan beharra dago, kontratu honetan hitzartutako baldintzak betez gero, interes-tasa efektiboa urtean ehuneko ..... izango dela, eta hori kalkulatzeko:

- Higiezin-kredituko kontratuak arautzen dituen martxoaren 15eko 5/2019 Legearen II. eranskinean ezarritakoa hartuko da aintzat.

Hori guztia alde batera utzi gabe LABORAL KUTXAK bere eskubideak balia ditzakeela " MUGAEGUNERATZEA AURRERATZEKO ARRAZOIAK " estipulazioan ezarritakoan oinarrituta.



## **KOMISIOAK**

**Irekitze-komisioa.** Eragiketa honek ..... EUROko irekiera-komisioa izango du eta zenbateko hori kontratu hau sinatzean likidatu eta ordainduko dute MAILEGARIEK.

### **Posizio zordunak erreklamatzearagatiko komisioa:**

#### **A) KONTSUMITZAILEENTZAKO MAILEGUETAN:**

Eragiketa honen bizitzan mugaeguneratu eta ordaindu gabeko zenbatekorik sortzen bada kapitalaren edo interesen ondorioz, LABORAL Kutxak beharrezko gestioak egingo ditu ordaindu gabeko zor hori berreskuratzeko, eta behar diren baliabideak bideratuko ditu horretara.

Gestio horiek askotarikoak izan daitezke: telefono-deiak, SMSak, mezu elektronikoak, ohiko posta-zerbitzuaren bidez bidalitako idatzizko jakinarazpenak edota aurrez aurreko bilerak bulegoetako langileekin (sare komertzialekoekin edo berreskurapenean espezializatutako beste arlo batzuetakoekin). Horien bidez, mugaeguneratu eta ordaindu gabeko zorrari buruzko informazioa emango zaio alderdi mailegu-hartzaileari, eta egoera erregularizatze eskatuko zaio, ez erregularizatzearen ondorioez ohartarazteaz gain.

Ez-ordaintzea erregularizatze entitateak egin behar dituen gestioen ondorioz, ... **euroko** komisioa kobratuko du, ez-ordaintzea **50 €**-tik gorakoa denean, gertatu ondorengo **10 egunetan** ordaintzen denean eta berreskuratzeko jakinarazpen bakarria dagoenean. Ez-ordaintzea **10 egunetik gora eta 35 egunetik behera** luzatzen bada eta, beraz, berreskuratzera bideratutako baliabideak handiagoak izango direnez berreskurapena lehen 10 egunetan eginda erabilitakoak baino, ... **eurokoa** izango da komisioa. Ez-ordaintzeak **34 egunetik gora** irauten badu, berriz, dirua berreskuratzeko baliabideak lehenago deskribatutako kasuetan erabilitakoak baino handiagoak izango direnez, ... **euroko** komisioa jasanaraziko da.

Mugaeguneratu eta erreklamaturako kopuru bakoitzeko behin bakarrik ezarriko da komisioa, nahiz eta ez-ordaintzearen ondorioz hainbat erreklamazio egin behar izan.

Komisio horrek ez du ordaintzen entitateari eragiten zaion kalte ekonomikoa, alderdi mailegu-hartzaileak hitzartutakoaren arabera itzuli behar izango zukeen dirua epean ez erabili ahal izatearen ondoriozkoa, kalte hori berandutze-interesen bidez ordaindu beharko litzateke eta. Mugaeguneratu eta ordaindu gabeko kopuruak berreskuratzeko bideratutako baliabideengatik aplikatzen da komisio hori.

#### **B) MAILEGU MERKANTILETAN:**

Eragiketa honen bizitzan zehar mugaeguneratu eta ordaindu gabeko kopuruak badaude, bai kapitalagatik bai interesengatik, posizio zordunak erreklamatzearagatiko komisioa kobratuko da, baldin eta erreklamaziorik badago. Mugaeguneratu, ez ordaindu eta erreklamaturako kopuru bakoitzagatik jasoko da komisio hori, baina ezin izango da ... eurotik gorakoa izan.

### **Atzera egiteagatiko konpentsazioa / Amortizazio aurreratu erabateko edo partzialagatiko komisioa.**

**Itzultze aurreratu erabateko edo partziala** maileguaren **interes aldakorraren** epean egiten bada, alderdi MAILEGU-HARTZAILEAK komisiotan zenbateko bat ordainduko dio LABORAL Kutxari, galera finantzarioaren zenbatekoa gainditu gabe eta muga honekin:

(Bi aukeretakoa bat aukeratu, elkar bazterten dute eta)

- Aurrez amortizatutako kapitalaren 100eko .....(e)koa, amortizazioa partziala denean, eta kapitalaren 100eko .....(e)koa, ezereztea edo amortizazioa erabatekoa denean, baldin eta maileguaren bizitzako lehen ..... hilabeteetan egiten bada.
- Eta aurrez amortizatutako kapitalaren 100eko .....(e)koa, amortizazioa partziala denean, eta kapitalaren 100eko .....(e)koa, ezereztea edo amortizazioa erabatekoa denean, baldin eta maileguaren bizitzako hurrengo ..... hilabeteetan egiten bada.

Aurreko paragrafoetan aipatu den LABORAL Kutxaren galera finantzarioa honela kalkulatu da: itzultitako kapitalaren proportzioan eta itzultze aurreratua egin denean ordaintzeko dagoen kapitalaren eta MAILEGUAREN egungo merkatu-balioaren arteko alde negatiboa aintzat hartuta.

Bestalde, MAILEGUaren egungo merkatu-balioa honela kalkulatu da: interes-tasen hurrengo berrikuspena egin arte ordaintzeko dauden kuoten egungo balioa gehi ezerezte aurreratua egin ez balitz berrikuspena egiteko unean ordaintzeko geratuko zatekeen kapitalaren egungo balioa. Eguneratzeko interes-tasa merkatukoa izango da, hurrengo berrikuspenera arte geratzen den epeari aplikatzekoa.

Espaniako Bankuak argitaratuko dituen 2, 3, 4, 5, 7, 10, 15, 20 eta 30 urterako Interest Rate Swap (IRS) tasak hartuko dira erreferentziako indize edo interes-tasatzat, eta diferentzial bat gehituko zaie.

Eragiketa kontratatzeko unean eragiketaren interes-tasaren eta une horretan interes-tasa berrikusteko hurrengo egunetik edo muga-egunetik hurbilen dagoen eperako IRSaren arteko aldea da portzentajezko ..... puntuko diferentzial hori.

Aipatutako erreferentziako interes-tasen artean, ezerezte aurreratuaren egunetik interes-tasaren hurrengo berrikuspenera arte edo muga-egunera arte dagoen MAILEGUaren epera gehien hurbiltzen den tasa aplikatuko da.

### **BERANDUTZE-INTERESA**

Mugaeguneratutako eta ordaindu gabeko zenbateko guztiek (bai kapitalaren eta bai interesen ondoriozkoek) interesa sortuko dute, jakina. Hori kalkulatzeko, mugaeguneratutako kopurua oinarri harturik, urtean ehuneko **3 (e)ko** estratasa nominala gehituko zaio, erantzun ez zaion kuota bakoitzaren mugaeguneari indarrean dagoen interesari, hobariak kenduta.

Berandutzako interes-tasa hori finkoa izango da ordaindu gabeko kuota bakoitzarentzat, harik eta ordaintzen den arte. Interesok kuota ordaintzen denean likidatuko dira, eta kalkulua honela egingo da: ordaindu gabeko zenbatekoak bider atzeratutako egun-kopurua bider interes-tasa aplikagarria, zati **365** (bisurteetan, 366).

### **GASTUAK**

**Alderdi MAILEGU-HARTZAILEA**ren kontura izango dira gastu hauek:

- a) Notarioritza: jatorrizko polizaren eta alderdi MAILEGU-HARTZAILEAK eskatutako kopiak jaulkitzearen notarioritza-zergak.
- b) Zergak: alderdi MAILEGU-HARTZAILEARI, subjektu pasiboa den aldetik, abonatzea egokitzen zaizkionak.

Gastu hauek, berriz, **LABORAL KUTXA**ren kontura izango dira:

- a) Notarioritza: LABORAL Kutxak eskatutako izaera exekutiboko kopiak sortutako notarioritza-zerga.
- b) Zergak: alderdi MAILEGU-EMAILEARI, subjektu pasiboa den aldetik, abonatzea egokitzen zaizkionak.

MAILEGUA ematetik eratorritako aurrekoek bestelako edozein gastu edo zerga alderdi bati edo besteari egotziko zaio araudiaren arabera, eta, araudirik ezean, gastu hori eragin duen jardueraren onuradunari.

### **MUGA-EGUNA AURRERATZEKO ARRAZOIAK**

**A AUKERA: ALDERDI MAILEGU-HARTZAILEA, ABAL-EMAILEA EDO BERMATZAILEA PERTSONA FISIKOA DUTENAK ETA BIZITEGI-ERABILERARAKO ERAIKITA EDO ERAIKITZEKO DAUDEN LURSAIL EDO HIGIEZINEN JABETZA-ESKUBIDEAK ESKURATU EDO KONTSERBATZEKO HELBURUA DUTENAK**

LABORAL KUTXAK mailegua mugaeguneratutzat eman eta ordaintzeke dagoen zorra ordaintzeko eskatu ahal izango du, honako baldintza hauek betetzen badira:

- a) Alderdi MAILEGU-HARTZAILEA maileguaren kapitalaren edo interesen zati baten ordainketan berandutzea.
- b) Mugaeguneratuta eta ordaindu gabe dauden kuoten zenbatekoa, gutxienez, honako hauetako bat izatea:
  - i. Emandako kapitalaren zenbatekoaren % 3koa, baldin eta ez-ordaintzea MAILEGUaren iraupenaren lehen erdian gertatzen bada. Baldintza hau betetzat joko da, mugaeguneratutako eta ordaindu gabeko kuotak hileko 12 kuota ez ordaintzearen parekoak badira edo, bestela, ordaindu gabeko kuoten kopurua zordunak gutxienez 12 hileko epean duen ordaintzeko betebeharraren parekoa bada.

ii. Emandako kapitalaren zenbatekoaren % 7koa, baldin eta ez-ordaintzea MAILEGUaren iraupenaren bigarren erdian gertatzen bada. Baldintza hau betetzat joko da, mugaeguneratutako eta ordaindu gabeko kuotak hileko 15 kuota ez ordaintzearen parekoak badira edo, bestela, ordaindu gabeko kuoten kopurua zordunak gutxienez 15 hileko epean duen ordaintzeko betebeharraren parekoa bada.

c) LABORAL KUTXAK mailegu-hartzaileari zorra ordaintzeko eskatu eta horretarako gutxienez hilabeteko epea eman izana, errekerimendua bete ezean maileguaren zorra osorik ordaintzeko eskatuko diola ohartarazita.

**B AUKERA: ALDERDI MAILEGU-HARTZAILEA, ABAL-EMAILEA EDO BERMATZAILEA PERTSONA FISIKOA DUTENAK ETA BIZITEGI-ERABILERIK GABE ERAIKITA EDO ERAIKITZEKO DAUDEN LURSAIL EDO HIGIEZINEN JABETZA-ESKUBIDEAK ESKURATU EDO KONTSERBATZEKO HELBURUA DUTENAK**

Kontratu honetan izartutako epeetan tronkoa edo interesak ordaintzeko obligazioen bat betetzen ez badute MAILEGARIek, une horretan ordaintzeko dauden epe edo kuota guztiak mugaeguneratuko dira. Beraz, LABORAL KUTXAK kapital eta interesetan zordundutako kopuru osoa berehala entregatzea eskatu ahal izango du.

Era berean, ondoren datozen kasuetan LABORAL Kutxak MAILEGU hau baliogabetu eta MAILEGARIei ordainketari dagokionez dituzten betebeharrak exijitu ahal izango dizkie:

- a) MAILEGUA emateko edo indarrean egoteko alderdi MAILEGU-HARTZAILEAK edo FIDATZAILE(a/e)k aurkeztu dituzten datu edo agiriak faltsuak direla egiaztatzen denean.
- b) MAILEGARIek eta FIDATZAILEek MAILEGUA lortzeko adierazitako kaudimenak gutxitzen direnean eta nolana ere, horiek % 25eko narriadura, lerra edo balio-galera dutenean, eta, kasu horietan, alde MAILEGARIAko galera horiek konpentsatzeko berme gehigarriak eratzten ez dituenean.
- c) Zuzenbideak muga-eguna aurreratzeko ezartzen duen edozein arrazoi agertzen bada.
- d) Alde MAILEGARIAK zenbatekoa MAILEGUa emateko aurkeztu diren dokumentuetan ezarritako helbururako ez erabiltzea.

**ATZERA EGITEKO ESKUBIDEA**

Alde MAILEGARIA2k atzera bota ahal izango du MAILEGU-kontratu hau, eta , orduan baliorik gabe geratuko da. Horretarako, LABORAL KUTXA jakinaren gainean jarri beharko du, zuzenbideak onartzen duen edozein jakinarazpen-bitarteko erabiliz, hamalau egun naturaleko epean. Helbidea hauxe izango da: Jose M. Arizmendiarieta, zk.g., 20500, Arrasate. Ez dago arrazoiak adierazi beharrik, eta ez du inolako penalizaziorik izango.

Kontratuan atzera botatzeko eskubidearen epea MAILEGU-kontratua sinatzen denean hasiko da, edo, geroagokoa bada, kontsumitzaileak kontratuaren baldintzak jasotzen dituenean.

Alde MAILEGARIAK atzera botatzeko eskubidea erabiltzen badu, betekizun hauek izango ditu:

- a) LABORAL Kutxari lehen adierazi dugun jakinarazpena helaraztea.
- b) MAILEGUA erabiltzen duen datatik kapitala errenboltsatu bitartean kapital horren gainean metatutako kapitala eta interesak LABORAL Kutxari ordaintzea, inolako atzerapenik gabe eta, beranduenez, atzera botatzeko jakinarazpena bidali ondorengo 30 egunetan. Zordundutako interesak hitzartutako tasan kalkulatu dira, eta, helburu horrekin, eguneko interesa hauxe izango da: MAILEGUaren zenbatekoa x MAILEGUaren urteko interes-tasa nominala / 36.500.

**INFORMATUTA IZATEKO BETEBEHARRA**

Alderdi MAILEGU-HARTZAILEA behartuta dago, hemendik aurrera, LABORAL Kutxak izendatzen dituen lagunei eskatzen dizkioten balantze, kontabilitateko egoera-orri eguneratu eta gainerako dokumentuak ematera, MAILEGUA eratu zenetik haren ondareak aldaketarik izan duen ikusteko.

**ZOR LIKIDOAREN ZEHAZTAPENA**

Prozesu-ondoretarako, esku-hartzaileek hauxe hitzartu dute espresuki: kontratu honetan aldeek hitzartu duten eran Erakunde hartzekodunak egindako likidazioaren emaitza izango da exekuzio-kasuan galdatu ahal izango den kopurua.

**JAKINARAZPENAK ETA ERREKERIMENDUAK**

Kontratu honetako jakinarazpen, errekerimendu eta komunikazioetarako, alderdi MAILEGU-HARTZAILEaren eta FIDATZAILE(ar/e)n helbideak agiri honetan agertzen direnak izango dira, baldin eta bizileku-aldaketaren jakinarazpen fedemailerik ez badago.

Esku-hartzaileek espresuki hitzartu dute zuzenbidean baliozkoa den edozein bide erabili ahal izango dela jakinarazpenak igorri eta jaso direla ziurtatzeko. Berariaz baliozkotzat jo da alderdi MAILEGU-HARTZAILEaren edo FIDATZAILE(ar/e)n (egonez gero) helbidera burofaxa bidaltzea. Burofaxaren igorpen-ordetzakagiriak izango dira jakinarazpenaren froga fedemaileak.

## **BAIMENAK**

Kontratu honen titularrak baimena eman dio espresuki LABORAL Kutxari, bertan (kontu korrontean, aurrezki-libretan edota bestelako modalitate batean) bere izenean duen kopurutik MAILEGUaren mugaeguneraturiko eta ordaindu gabeko zenbatekoak atxikitzeko eta konpentsatzeko, gorabehera hori gertatzen bada, bai eta gordailuak aurrez ezerezteko ere.

Estipulazio honetan ezarritako konpentsazio-eskubidearen barruan sartzen da, halaber, LABORAL Kutxaren beste ahalmen hau ere: alderdi MAILEGU-HARTZAILEAK edo FIDATZAILE(a/e)k LABORAL Kutxan gordailututa du(t)en edozein tituluz edo kontuko idatzoharrez ordetzatutako baloreak saltzea, eta salmentatik lortutako zenbatekoa MAILEGU honetan mugaeguneratuta eta ordaindu gabe dauden kopuruak ordaintzeko erabiltzea. Era berean, LABORAL Kutxak ahalmena izango du, alderdi MAILEGU-HARTZAILEaren edo FIDATZAILE(ar)en edozein finantza-aktibo (tituluak, eskubideak, kontuko idatzoharrak eta abar) saldu edo itzultzeko, LABORAL Kutxan gordailututa badaude edo horrek kudeatzen baditu.

Estipulazio honen eraginpean daude, berariaz, gaur egun edo etorkizunean alderdi MAILEGU-HARTZAILEA edo FIDATZAILEA(k) titular ditu(zt)en inbertsio-fondoetako partaidetzak, Caja Laboral Gestión SGIIC SAK kudeatutakoak. Agiri honek partaidetzak itzultzeko agindu ezeztazinen legezko balioa du, eta alderdi MAILEGU-HARTZAILEAK edo FIDATZAILE(a/e)k horretarako berariazko eta legezko baimena eman dio(te) LABORAL Kutxari.

Partaidetzen likidazio-balioa izango da horien prezioa, alegia Bilboko Balore Bursaren Kotizazioaren Buletin Ofizialean argitaratzen dena eta dagokion inbertsio-fondoaren erregelamenduan eta xedapen aplikagarrietan xedatutakoaren arabera finkatzen dena.

## **FIDANTZAMENDUAK**

FIDATZAILE(a/e)k LABORAL Kutxari bermatzen dio(te), erantzukizun pertsonal eta solidarioz alderdi MAILEGU-HARTZAILEArenkin eta erantzukizun solidarioz elkarren artean, alderdi MAILEGU-HARTZAILEAK bete egingo dituela MAILEGU-kontratu honen arabera bereganatu dituen betebeharrak guztiak. Erantzukizun solidario horren ondorioz, gainera, berariaz uko egiten diete ordena-, eskusio- eta banaketa-onurei.

Uko-egite horren ondorioz, printzipioz ber(ar)en izaerari dagozkion onurak galduko ditu(zte) FIDATZAILE(a/e)k. Horregatik, alderdi MAILEGU-HARTZAILEAK bere betebeharrak betetzen ez baditu, uko egiten dio(te) lehenengo zordun nagusiari eta gero FIDATZAILE(ar/e)i erreklamatzeari (ordenaren onura); zordun nagusiaren ondasun guztiak exekutatu arte FIDATZAILE(ar/e)i ez erreklamatzeari (eskusio-onura), eta, azkenik, FIDATZAILE bat baino gehiago egonez gero zorra guztien artean banatzeari eta bakoitzari dagokion zatia eskatzeari. Izan ere, uko-egite horren ondorioz, aukera egongo da zor osoa edota zorraren zati bat FIDATZAILE batzuei eskatzeko eta besteak salbuesteko, edota guztiei zorraren zati bera ez eskatzeko (banaketa-onura).

Hemendik aurrera eta ondore guztietarako, FIDATZAILE(a/e)k onartu egin ditu(zte) LABORAL Kutxak alderdi MAILEGU-HARTZAILEAri ematen dizkion luzamenduak eta ordainketa-erraztasunak eta, oro har, tresna honetan formalizatuko den eragiketaren gainean alderdi MAILEGU-HARTZAILEAK eta LABORAL Kutxak hitzar ditzaketen gainerako baldintza guztiak, betiere MAILEGUaren zenbatekoa edo interes-tasa, komisioak eta berandutze-komisioak handitzea ez badakarte, edota MAILEGUaren azken muga-eguna aldatzea ez badakarte.

Alderdi MAILEGU-HARTZAILEA, FIDATZAILE bat edo bermetarako eskubide errealak eratu dituen hartzekodunen konkurtsoan badago, hartzekodunen hitzarmena onesteak ez ditu mugatuko konkurtsopean ez dauden obligaziodunen eta FIDATZAILE(ar/e)n aurrean LABORAL Kutxak dituen eskubideak, nahiz eta LABORAL Kutxaren atxikimendua edo aldeko botoa izan, edukia edozein delarik ere (kitak eta itxarroteak barne). Konkurtsopean ez dauden obligaziodunek eta FIDATZAILE(a/e)k onartu egin dute, berariaz, atxikimendu edo aldeko boto hori, eta ezingo dituzte erabili ez hitzarmenaren onespina ez horren eraginak, LABORAL Kutxaren kaltetan.

FIDATZAILEEK edo benetako berme-eskubideak eratu dituen orok, ezin izango dute ordainketako auzibidetik kanpoko edo birfinantzaketa-akordioan onarpenean oinarritutako argudiorik eman LABORAL KUTXAREN kaltetan, nahiz eta LABORAL KUTXAREN beraren atxikimendua edo aldeko botoa izan eta haren edukia edozein izanik ere, kitzateak eta/edo itxaronaldiak barne.

FIDATZAILE(a/e)k baimen ezeztazina eman dio(te), espresuki, LABORAL Kutxari, entitatean (kontu korrontean, aurrezki-libretan nahiz bestelako edozein modalitatetan) FIDATZAILE(ar/e)n izenean dauden kopuruetatik MAILEGU honetan mugaeguneraturiko eta ordaindu gabeko zenbatekoak atxikitzeko eta konpentsatzeko, gorabehera hori gertatzen bada.

FIDATZAILE(a/e)k LABORAL Kutxaren edozein bulegotan ordaindu beharko ditu(zte) bermatutako betebeharrak, entitateak lehen eskaera egiten di(o/e)n unean bertan, ordainketa-eskaera egokia edo desegokia den aztertzen hasi gabe.

Eragiketaren muga-egun normala edo aurreratua gertatu ondoren LABORAL Kutxak FIDATZAILE(ar/e)n aurka egitea erabakitzen duenerako, agerraldian adierazitakoa izendatu dute errekerimendua edo jakinarazpenak helarazteko helbide.

LABORAL Kutxak ez du FIDATZAILE(ar/e)ji ohararazpenik bidaltzeko obligaziorik izango, zordunek edo gainerako FIDATZAILEek ordaintzeko betebeharrean huts egiten badute.

Hemen aurkezten den fidantzamenduak indarrean iraungo du, harik eta bermatzen dituen betebeharrak guztiak, kontratu honetan jasota daudenak edota kontratua berritzeko edo ordeztzeko kontratuetan jasoko direnak, guztiz amaitu arte.

### **OINARRIK EMANDAKO FIDANTZAMENDUA**

FIDATZAILE(a/e)k erantzukizun pertsonal eta solidarioz bermatzen dio(te) LABORAL Kutxari, alderdi MAILEGU-HARTZAILEAK bete egingo dituela MAILEGU-kontratu honen arabera bereganatu dituen betebeharrak guztiak. Hauxe izango da gehieneko kopurua: adierazitako MAILEGUA dela eta alderdi MAILEGU-HARTZAILEAK printzipalean eta interes arruntetan LABORAL Kutxari zor dionaren % 20. Fidantza hori onartu egin du LABORAL Kutxaren ordezkariak. Fidantza erantzukizun SOLIDARIOZ eman da, eta, ondorioz, uko egiten zaie ordena-, eskusio- eta banaketa-onurei.

Hemendik aurrera eta ondore guztietarako, FIDATZAILE(a/e)k onartu egin ditu(zte) LABORAL Kutxak alderdi MAILEGU-HARTZAILEARI ematen dizkion luzamenduak eta ordainketa-erraztasunak eta, oro har, tresna honetan formalizatuko den eragiketaren gainean alderdi MAILEGU-HARTZAILEAK eta LABORAL Kutxak hitzar ditzaketen gainerako baldintza guztiak, betiere MAILEGUAREN zenbatekoa edo interes-tasa, komisioak eta berandutze-komisioak handitzea ez badakarte, edota MAILEGUAREN azken muga-eguna aldatzea ez badakarte.

Berme hau bateragarria da hemen partzialki fidantzatzen den MAILEGUAREN betebeharrak ordaintzeko LABORAL Kutxak alderdi MAILEGU-HARTZAILEARI zein hirugarren pertsonari onartu dizkien edo etorkizunean onar diezazkiekeen gainerako bermeekin. LABORAL Kutxak bereizi gabe, txandaka zein aldi berean erabili ahal izango ditu berme honetatik sortzen diren eskubideak eta legearen arabera dagozkion gainerakoak.

Alderdi MAILEGU-HARTZAILEA, FIDATZAILE bat edo bermetarako eskubide errealak eratu dituen hartzekodunen konkurtsoan badago, hartzekodunen hitzarmena onesteak ez ditu mugatuko konkurtsopean ez dauden obligaziodunen eta FIDATZAILE(ar/e)n aurrean LABORAL Kutxak dituen eskubideak, nahiz eta LABORAL Kutxaren atxikimendua edo aldeko botoa izan, edukia edozein delarik ere (kitak eta itxarroteak barne). Konkurtsopean ez dauden obligaziodunek eta FIDATZAILE(a/e)k onartu egin dute, berariaz, atxikimendu edo aldeko boto hori, eta ezingo dituzte erabili ez hitzarmenaren onspena ez horren eraginak LABORAL Kutxaren kaltetan.

Eragiketaren muga-egun normala edo aurreratua gertatu ondoren LABORAL Kutxak FIDATZAILE(ar/e)n aurka egitea erabakitzen duenerako, agerraldian adierazitakoa izendatu dute errekerimendua edo jakinarazpenak helarazteko helbide.

Hemen aurkezten den fidantzamenduak indarrean iraungo du, harik eta bermatzen dituen betebeharrak guztiak, kontratu honetan jasota daudenak edota kontratua berritzeko edo ordeztzeko kontratuetan jasoko direnak, guztiz amaitu arte.

### **OINARRIK BESTE FIDATZAILE BATEKIN BATERA EMANDAKO FIDANTZAMENDUA**

Kontratu honen ondoriozko betebeharrari erantzuteko, Kode Zibilarren 1.911 artikulua arabera alderdi MAILEGU-HARTZAILEAK duen ondasun guztien gaineko erantzukizun mugagabea ez ezik, fidantzamendu bat ere badago. «Oinarri SGR» sozietateak eta ekitaldi honetan azaldu d(ir)en FIDATZAILE(a/e)k eman dute, alderdi MAILEGU-HARTZAILEAREKIN erantzukizun solidarioz eta ordena-, eskusio- eta banaketa-onurei berariaz uko eginez; aurrerantzean, «FIDATZAILE-TALDEA» izenez aipatuko ditugu.

Fidantzamenduan arau hauek aplikatuko ditugu:

Hauxe da FIDATZAILE(a/e)k fidantzatzen du(t)en gehieneko zenbatekoa:

Oinarri SGRk gehieneko zenbateko osoaren % 20 bermatuko du; hau da, adierazi den MAILEGUA dela eta alderdi MAILEGU-HARTZAILEAK LABORAL Kutxari zor dizkion printzipalari eta interesei dagozkien zenbatekoaren % 20.

Gorago adierazitako pertsonak osatzen duten FIDATZAILE-TALDEAK pertsonalki eta solidarioki bermatzen dio LABORAL Kutxari, bete egingo direla alderdi MAILEGU-HARTZAILEAK MAILEGU-kontratu honen bidez hartu dituen betebeharrak guztiak.

FIDATZAILE-TALDEAK, LABORAL Kutxaren aurrean erantzukizun solidarioa izateaz gain, kideen arteko erantzukizun solidarioa ere badu.

Hemendik aurrera eta ondore guztietarako, FIDATZAILE(a/e)k onartu egiten ditu(zte) LABORAL Kutxak alderdi MAILEGU-HARTZAILEari ematen dizkion moratoria eta ordainketa-erraztasun guztiak eta, oro har, tresna honetan formalizatuko den eragiketaren gainean alderdi MAILEGU-HARTZAILEAK eta LABORAL Kutxak etorkizunean hitzar ditzaketen gainerako baldintza guztiak, betiere MAILEGUaren zenbatekoa edo interes-tasa, komisioak eta berandutze-komisioak handitzea ez badakarte, edota MAILEGUaren muga-eguna aldatzea ez badakarte.

Alderdi MAILEGU-HARTZAILEA, FIDATZAILE bat edo bermetarako eskubide errealak eratu dituen hartzekodunen konkurtsoan badago, hartzekodunen hitzarmena onesteak ez ditu mugatuko konkurtsopan ez dauden obligaziodunen eta FIDATZAILE(ar/e)n aurrean LABORAL Kutxak dituen eskubideak, nahiz eta LABORAL Kutxaren atxikimendua edo aldeko botoa izan, edukia edozein delarik ere (kitak eta itxarroteak barne). Konkurtsopan ez dauden obligaziodunek eta FIDATZAILE(a/e)k onartu egin dute, berariaz, atxikimendu edo aldeko boto hori, eta ezingo dituzte erabili ez hitzarmenaren onespina ez horren eraginak LABORAL Kutxaren kaltetan.

FIDATZAILE-TALDEAK berariazko baimen ezeztazina eman dio LABORAL Kutxari, entitatean (kontu korrontean, aurrezki-libretan nahiz bestelako edozein modalitatetan) FIDATZAILE-TALDEaren izenean dauden kopuruetatik MAILEGU honetan mugaeguneraturiko eta ordaindu gabeko zenbatekoak atxikitze edo konpentsatzeko, gorabehera hori gertatzen bada.

Eragiketaren muga-egun normala edo aurreratua gertatu ondoren LABORAL Kutxak FIDATZAILE(ar/e)n aurka egitea erabakitzen duenerako, agerraldian adierazitakoa izendatu dute errekerimendua edo jakinarazpenak helarazteko helbide.

LABORAL Kutxak ez du FIDATZAILE(ar/e)i ohartarazpenik bidaltzeko obligaziorik izango, zordunek edo gainerako FIDATZAILEek ordaintzeko betebeharran huts egiten badute.

Hemen aurkezten den fidantzamenduak indarrean iraungo du, harik eta bermatzen dituen betebeharrak guztiak, kontratu honetan jasota daudenak edota kontratua berritzeko edo ordeztzeko kontratuetan jasoko direnak, guztiz amaitu arte.

FIDATZAILEA(k) «Kreditu-erakundeak aurrez suntsiaraztea» klausularen A) letran ezartzen diren zirkunstantzietakoren batean eroriz gero, MAILEGUA aurretik mugaeguneratzeko ahalmena izango du LABORAL Kutxak.

#### **ERREKLAMATZEKO JUDIZIOZ KANPOKO PROZEDURAK**

LABORAL Kutxak Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua jarri du alderdi MAILEGU-HARTZAILEaren eskura, haren kexak eta erreklamazioak kudeatzeko. Hauxe da helbidea: Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua, HFko 2. kutxa, 20500, Arrasate; helbide elektronikoa: [Servicio.de.Atencion.al.Cliente@CajaLaboral.es](mailto:Servicio.de.Atencion.al.Cliente@CajaLaboral.es).

Kexa nahiz erreklamazioa idatziz bidal dezake bezeroak. Horretarako, bulego guztietan, Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuaren erakustaltzarian, eskura dagoen inprimakia edo eredu erabili ahal izango du.

Era berean, LABORAL Kutxaren webgunean (<https://www.laboralkutxa.eus>; helbidean) ere egin daiteke, behar diren erreferentzien bidez identifikatu eta gero. Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuak atal bat du bertan, kexa edo erreklamazioa Internet bidez helarazteko.

Kexak edo erreklamazioak ebazteko, 2 hilabeteko epea dago gehienez. Hortaz, epe hori iragandakoan kasua konpondu gabe badago edo emandako erantzunarekin edo erabakiarekin ados egon ezean, helbide honetara jo ahal izango du bezeroak: Finantza-zerbitzuetako bezeroaren babeserako komisarioa – Arauketaren eta Gardentasunaren Dibisioa, Alcalá kalea, 50, 28014, MADRIL.

#### **LANBIDE- EDO ENPRESA-JARDUERAREN ESPARRUAN DIHARDUTEN BEZEROEI APLIKAGARRI ZAIZKIEN ARAUAK**

Espainiako Bankuaren 2012ko ekainaren 27ko 5/2012 Zirkularren bigarren arauan jasotakoaren arabera, bezeroak bere lanbide- edo enpresa-jardueraren esparruan diharduenean, ez zaio Zirkular horretan ezarritakoa aplikatuko, 13.etik 15.era bitarteko arauetan ezarritakoa salbu.

## **DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA**

### **Tratamenduaren erantzulea**

#### **LABORAL KUTXA**

Helbidea: Arrasate (Gipuzkoa), Jose María Arizmendiarrrieta pasealekua zk.g.

Helbide elektronikoa: [protecciondatos@laboralkutxa.com](mailto:protecciondatos@laboralkutxa.com)

Harremanetan jartzeko: Datuak babesteko ordezkaria

### **Tratamenduen helburu nagusiak**

#### **Kontratu-harremanaren egikaritzean oinarrituta**

- Bezeroaren alta ebaluatu eta izapidetzea, kontratazioak gestionatzea eta kontratatutako produktuak eta zerbitzuak administratzea.  
Finantzaketa-eskaera baten edo beste arrisku-produktu baten aurrean, kaudimen-gaitasuna eta -egoera aztertzea, besteak beste CIRBE eta kreditu-informazioko sistemak kontsultatuta.
- Komentzia- eta egokitasun-testa egitea, finantza-tresna bat kontratatzea erabakitzen duzunean eta MiFID araudiak hala eskatzen duenean.
- Zure datuak LABORAL Kutxa Taldeko enpresei jakinaraztea, haien produktu eta/edo zerbitzuren bat kontratatzen duzunean.

#### **Lege-betebehar batean oinarrituta**

- Beharrezko gestioak eta egiaztapenak egitea, kapitalak zuritzeari aurrea hartzearen eta merkatu-abusuaren alorreko betebeharrak eta beste edozein lege aplikagarri betetzeko.
- Arrisku-profilak eta -ereduak prestatzea, kaudimena eta finantza-arriskua kontrolatzeko, kapitala kalkulatzeko eta arriskua kudeatzeko faseei dagokienez eragiketa eta bezero bakoitzeko beharrezkoak diren hornidurak egiteko.
- Datuak komunikatzea agintari publikoei, erregulatuzaileei edota gobernu- edo jurisdikzio-organoei, araudiak hala eskatzen duenean.
- Ordainketak hasteko zerbitzuen edo kontuei buruzko informazioaren hornitzaileek eskatutako ordainketa-kontuekin lotutako datu pertsonaletarako sarbidea ematea, zerbitzu horiek kontratatu badituzu.
- Finantza-produktu baten telefono bidezko kontratazioan ahots-grabazioak egitea eta gordetzea, baita bideoak ere, segurtasun-xedearekin.

#### **Laboral Kutxaren interes legitimoan oinarrituta**

- Ordainketa, kreditu edo finantzaketa bat ez bada adostutako moduan ordaintzen, datuak kreditu-informazioko sistemei lagatzea (ASNEF eta BADEXCUG fitxategiei), legez aurreikusitako baldintzak betetz.
- Kontratutako produktuei eta/edo zerbitzuei buruzko gogobetetze-inkestak egitea.
- Zurekin harremanetan jartzeko datuak erabiltzea, LABORAL Kutxarekin kontratatuta dituzunen antzeko produktuei eta zerbitzuei buruzko jakinarazpenak bidaltzeko, edozein bitarteko erabilita.
- Bezeroen profilak sortzea, dagoeneko kontratatuta dituztenen antzeko produktu eta zerbitzuei buruzko jakinarazpen komertzialak zein bezero-talderi bidaliko zaizkion zehazteko.
- Datuak tratatzea eta/edo LABORAL Kutxa Taldeko enpresei eta Iberpay fitxategiari jakinaraztea, iruzurra saihesteko, ikertzeko eta/edo agerian jartzeko. Gainera, jokabide-eredu bat sortuko dugu Online Bankan eta aplikazio mugikorrean nabigatzeko duzun moduari erreparatuta, iruzurrezko erabilerak hautemateko.
- Ahotsa eta/edo irudia grabatzea, zerbitzuaren kalitateari eusteko eta, beharrezkoa izanez gero, grabazioak proba gisa erabiltzeko epaiketean eta epaiketatik kanpo.
- Zure sinadura digitalizatua jasotzea, sinadura elektronikoko gailuen bidez.
- Zure datuak eta beste bezero batzuenak elkartzea, entitatearen eta bere langileen eta agenteen jardunaren jarraipena egiteko.
- Datuak anonimotzea, produktuen eta zerbitzuen erabilera-ereduak aztertzeko.

#### **Baimen esplizituan oinarrituta**

- Profilak prestatzean eskura dauden zure datu pertsonal guztiak konbinatzea, zer produkturi eta zerbitzuri buruzko publizitatea bidaliko dizugun zehazteko.
- Zure harremanetarako datuak erabiltzea, LABORAL Kutxa Taldeko enpresek edo beste enpresa laguntzaile batzuek kontratatuta dituzunen antzekoak ez diren produktuei edo zerbitzuei buruzko jakinarazpen komertzialak eta/edo publizitate-jakinazpenak bidaltzeko, edozein bitarteko erabilita eta zuk alde zuzenetik eskatu gabe.
- Zure datu pertsonalak LABORAL Kutxa Taldeko enpresei lagatzea, profilak egiteko informazio gehiago izan dezaten eta beren produktuei edo zerbitzuei buruzko jakinarazpen komertzialak bidaltzeko.
- Zure geolokalizazioa ezagutzea, hori behar duten zerbitzuak emateko.

#### **Datuen hartzaileak:**

- Agintari publikoak, gainbegiratzailerak, erregulatuzaileak edota gobernu- edo jurisdikzio-organismoak, legezko betebeharrak betetzeko beharrezkoa denean, direla bertakoak direla beste herrialde batzuetakoak (EBkoak zein kanpokoak).
- Espainiako Bankuko Arriskuen Informazio Zentrala (CIRBE), Finantza Titulartasunen Fitxategia eta kreditu-informazioko sistemak (Asnef-Equifax, Servicios de Información sobre Solvencia y Crédito SL eta Experian Bureau de Crédito SA).

- Iruzurri aurrea hartzeko Iberpayko fitxategiak.
- LABORAL Kutxa Taldeko sozietateak, baimena eman baduzu.
- LABORAL Kutxako finantza-batzailearen bidez izendatzen dituzun entitateak.
- Kontratuaren edo ahalordetzearen baldintzen arabera kontuetan esku hartzen duten baimenduak, ordezkariak, ahalordedunak eta bestelako figura legalak.
- LABORAL Kutxa zerbitzuez hornitzen duten enpresak, eskusiboki zerbitzu horiek emateko.

#### **Datuak babesteko eskubideak:**

Eskubidea duzu emandako baimena atzera botatzeko eta datuetan sartzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, datuen tratamendua mugatzeko eta eragozteko, datuak eramateko eta erabaki automatizatuen xede ez izateko, «Informazio gehigarria» atalean xehatzen denez.

#### **Informazio gehigarria:**

Helbide honetan kontsulta daiteke LABORAL Kutxako bezeroentzako Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko Politikari buruzko informazio gehigarri xehatua: [www.laboralkutxa.eus](http://www.laboralkutxa.eus)

Era berean, esanbidez jakinarazten da Laboral Kutxak zuk emandako hirugarrenen datuak tratau ahal izango dituela, baldin eta horiek tratatzea beharrezkoa bada kontratua gauzatzeko.

#### **FEDE-EMAILEAREN PARTE-HARTZEA**

Agiri honen formalizazioan ..... notarioak hartu du parte, ondore guztietarako aldeek espresuki eskatuta, eta kontratu honetan hitzartutakoaren, kontratugileen nortasunaren eta lege-gaitasunaren eta haien sinaduren legitimitatearen fede eman du.